

TELEBISTA

Telebista, gure eguneroko bizitzan erabiltzen dugun material ohikoenetariko bat da.

Normalean, gure etxeko egongeletan edo sukaldean edukitzen ditugu, batzuk logeletan ere. Bertan hainbat kanal ikus ahal izateko, telebistak pantaila batez osatua dago, plasmarekin osatua.

Telebistaren barnealdean plastikoa ere egon daiteke, eta, nola ez, metala. Baliteke, tresna honek kobrea izatea.

Telebistak, irudien bidez azaltzen du informazioa hartzailearengana, baina baita soinuen bidez ere; horregatik, propietate optiko eta akustikoak ditu. Elektrizitatearen bidez funtzionatzen duenez, propietate elektrikoa dauka ere, noski.

Telebistaren historia honako hau da: Lehenengo saioak XIX. mendearen bukaeran egin ziren, eta 1884an Paul Nipkow zientzialari alemaniarrek sistema mekanikoa erabiliz telebista sistema bat egiteko patente bat lortu zuen. 1900-1920 urteetan egin ziren elektronikan aurrerapen handienak. 1926. urtean Ingalaterran John L. Bairdek elektrizitatea zerabilen lehenengo telebista sistema egin zuen. Geroztik, telebista berehala zabaldu zen mundu osoan, batez ere Bigarren Mundu Gerraren ondoren, eta gaur egun komunikabide guztien artean indartsuena eta lasterrena dela ezan daiteke.